

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Transito Amaguaña: oinutsik borrokatu eta oinutsik hil

Ehun urte kunplitzeko bezperatan hil da Ekuadorren, maiatzaren 10ean, indigenak ugazaba feudalen atzaparretatik askatzeko borrokako buruzagietako bat. Transito Amaguañaren bizitzan bildurik daude indio amerkarren trajediak eta itxaropenak.

GELA BAKARREKO ETXE TXIKIAN bizi izan ditu azken urteak Transito Amaguaña borrokalari zaharrak errainarekin eta bilobekin, Quitotik iparrera dagoen Cayambe herrian. Txabola 1997an eman zioten, aurretik izendatutako pentsioa osatzeko. Amandre matxinoa sorterrian eta kasik jaiotzean zeukan txirotasunean hil da.

Zahartzeak zimurtu bai baina ez zuen samurtu: bixitan hurbildutako kazetari eta ikasleek diote fidakaitz ageri zela oraindik. Munduak mende betez emandako jipoiek zaildua izaki. Eta gaztetan baino askoz gutxiago hitz egiten bazuen ere, izaera menderagaitza ageri zuen esanetan. Berrikitari bereganatu hurbildutako gazte unibertsitariatu batzuei esan omen zien Amaguañak: “Alde guztietara joan naiz, denetan ibili naiz oinez, baina sekula ez dut saldu nire anai-arreben odola”.

Liburuak idatziak badira emakume honetaz: Lucas Kinttoren *Un símbolo del Movimiento Indígena Ecuatoriano*, Cecilia Miño Grijalvaren *Tránsito Amaguaña, heroína india*, Raquel Rodasen *Tránsito Amaguaña: su testimonio*. Ekuadorreko mugimendu indigenistaren erreferenteen artean aipatu izan dute. Baina famak ez zion xumetasun gogor errealista aldarazi amatxi analfabetoari. 1984an Ekuadorreko Alderdi Komunistak omen-

du zuen biltzar nagusian, eta buruzagi politikoei lore sorta oparitu ziotelarik, honela erantzun omen zien: “Buket hau ez dut ezertarako behar, eraman ezazue zeuen etxera, han ondo emango du. Ni pobrea naiz, janaria da behar dudana”.

Rosa Elena Tránsito Amaguaña Alba *huasipunguero* jaio zen. Izen hori ematen zitzaion lurjabe handi zurien *huasipungo*etan bizi ziren indigenei. Ekuadorrek independentzia ehun urte lehenago lortua izan arren, kolonialismo garaiko sistema feudala XX. mende erdi aldera arte iraun du. Jorge Icaza Coronel-ek izen bereko *-Huasipungo-* nobelarekin ezagutarazi zuen munduan 1930eko hamarkadan.

Huasipungueroek etxola eta baratze txikia edukitzeko aukera zuten... baldin eta terrateniente baten langile baziren. Langile baino esklabo esan beharko genuke. Gizonek asteko zazpi egunetan egin behar zuten lan ugazabaren lurretan. Teorian soldata bazuten, baina sarritan ez zitzaion ordaintzen. Semeek mitikotatik joan behar zuten beharrera soroetara eta alabak zortzi-bederatzi urtetatik nagusien neskametzara.

Ugazabek edozer egin ziezaieketen *huasipungueroei*, jipoitu, zigortu, bidali, bortxatu... Hilketak ere ohikoak ziren. Tránsito Amaguañak txikitant ikusi zituen ugazabaren matoiak

La Chica de la Luna blogetik hartutako argazkian ageri da Tránsito Amaguaña Alba, bloga egiten duen Nati Wolfen eta Martin Cuango izeneko gaztearen erdian. Irailean bete behar zituen 100 urte. XX. mende erdira arte Ekuadorren eta oro har Hego Amerikan milioika nekazari indigena morrontzarik basatienean zapaltzen zituen sistema feudalen lekuko izan da. “Nire gurasoak artzain izanak ziren hamaika urtez, 1.700 ardi zaintzen. Eta ez zieten ezer pagatu!”. Amagandik jasota jenioa eta indarra, nekazari indioen borroka guztietan hartu zuen parte. Ekuadorreko nazio indioen konfederazioak (CONAIE) haren esaldi bat usatzen du gaur: “Mendiko belarra bezalakoak gara: erauzi eta berriz hazten da. Guk mendiko belarrez estaliko dugu mundua”.

bere aita kolpatzen lanera berandu joan izanagatik. Izeba Pascuala urkatuta hil zioten, nagusiaren zekor bat hiltzen uzteagatik: emakumea zintzilikatzeko sokaren beste muturrean hildako animalia ipini zuten dilindan... Horrelakoa zen Ekuadorreko indioen eguneroko ogia.

Emakumeak ez dira mozkortzen

Amaguañak zioen bere aita Venancio beldurti koldarra zela, baina ama Mercedes Alba ausartagoa. “Analfabetoa zen, baina dena belarri entzuteko eta hitz egiteko. Alua zen gure ama, bortitza nagusiei borroka egiteko. Horregatik zen buruzagia amaxo. Hark hasi zuen borroka”.

Amak eskolara bidali zuen arren, bederatzi urterekin lanean ari zen Tránsito txikia. Eta nagusiak bortxatuko zuen beldurrez, hamalau urterako ezkondu zuten gurasoek, 25 urteko gizon alkoholiko batekin. Senarrak jo egiten zuen, baina oldartu egin zitzaion emaztea: “Berrito etorri zen ni jipoitzera –kontakten zuen– baina ni fuerte nengoen eta esan nion: ‘Senarra zara ala ez? Zure emaztea naiz ala ez? Hil nazazu edo hilgo zaitut, *carajo!*’. Bi egunez aritu ginen borrokan”. Auzotarrek apartatu zituzten arte.

Hogeita bat urtetan geratu zen bizi-alargun. Ekarrirako hiru haurretatik bizirik ziren biak mantentzeko



janari truke lan eginez. 1930ean lehenbiziko sindikatuen sorreran parte hartu zuen. Quitorainoko 26 ibilalditan hartu zuen parte, haur bat bizkarrean eta bestea eskutik, jorنالen igoera, zortzi orduko lanaldia eta igandea jai eskatzeko.

Borroka horietan ezagutu zuen Ekuadorreko beste buruzagi indigena famatua, Dolores Cacuango. Quitorainoko ibilaldietan haiek zihoazen buru, 66 kilometro oinutsik. “Quitorea bost, hamar edo hogeitazko ordezkaritza joaten ginen. Batzuetan ortotsik, bestetan espartinez. Cayamben espartinak erosi eta bizkarrean jartzen nituen. Taaiticu saltzaileak esaten zuen: ‘Ze emakume klase da hau, zapatak erosi eta jantzen ez dituen?’ Bidezidorretatik ibiltzen ginen, gara-

gar irina eta kanaberazko azukrea janaz. Gizonak mozkortzen ziren, emakumeok ez. Guayllabamban oinak garbitu eta espartinak jantzen nituen. Calderonen lo egin eta doktorengana abiatzen ginen”.

Jipoienez gain kartzelaldirik ere jasana zen, beste borrokalari indio askorekin batera. Diruz ez zuten erosi beste asko bezala. Hamabost urte eman zituen etxetik ihesi. Eta borroka horien lehen emaitzak 1944tik aurrera hasi ziren ikusten. Hortik aurrera hasi zen Ekuadorreko gobernuak nekazari esklabooi lurrak ematen, zenbait eskubide aitortzen, errebolta garaian nagusiek eta soldaduek eraitsitako etxeak berreraikitzeke baimenak ematen. Askotan gertatzen den moduan,

Amaguaña bera geratu zen lurrik gabe... inongo ugazabaren langile ez izateagatik.

1950eko hamarkadan Luisa Gomez de la Torre eta Dolores Cacuangoekin eskola asko antolatuz zituzten baserri guneetan, lehenbiziko aldiz gaztelania eta ketsua erabiltzen zutenak. Aldaketa harrigarria garai hartarako. 1961ean Kuba eta Sobiet Batasuna bisitatu zituen Ekuadorreko indigenen ordezkaritza moduan, eta etxerakoan lau hilabeterako espetxeratu zuten, komunistek ordainduta dirua eta armak ekarri behar omen zituela eta. Gerra Hotzaren garai beroak ziren.

Kooperatibak sortzen ere saiatu zen ondoko urteetan. Bigarren ezkontuta, senarra istripuz galdu zuen. Semeak aurretik galduak zituen, eta haietako baten emaztearekin pasa ditu azkeneko urteak sorterrian. Bidean ikusi ditu klase guttietako ustelkeriak hainbeste nekerekin eraikitako egituretan, baina hil arte ez du galdu egoskorria borrokalaria.

Joselias izeneko gazte batek blogean dauzka bilduta Tránsito Amaguañari bisitatu egindako argazkiak eta entzundako hitzok: “Guk, sufritu dugunok, negar egin dugunok, hainbeste zintako eta makilakada jasan ditugunok, bat eginik egon behar dugu. Batasuna artaburua bezalakoa da, ale bat kenduz gero lerroa galtzen da eta lerroa galduz gero bukatu da artaburua”. ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.





ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira